

Ihesi

Euskal Herria ezagutuz

Testua eta argazkiak:
Ainhoa Iarrea


Zizurkil (Gipuzkoa)

Atxulondo

Haranak irentsitako burdinola

1470. urtekoa da Atxulondo burdinolari buruzko lehenengo erreferentzia. Gipuzkoako burdinola garrantzitsuenetako bat izan zela diote, hogeita bost langile inguru izan zituelako bere garai onenetan. Baina denborak eta herri guneeetatik urruntzen zuen distantziak Zizurkilgo ipar-ekialdean galduta utzi dute. Urak, laharrak eta haranak berak garai bateko aztarnak desagerrarazi ditu ia. Gaur egun ingurunearen edertasunak horma batzuk besterik ez ditu zutik mantentzen, horiek ere ordea laster desagertuko dira.

Bitartean, antzinako paraje hau bisitatzek merezi du.



2007ko martxoaren 11

Mendiko larreak, Getariako San Anton eta XV. mendeko baserriak

ZIZURKILGO Udalak buelta honi hasiera ematen zaion leku berdinetik abiatuta, "Mendiko Larreak" bidea markatuko du (SL-Gi 26). Ezkeltzu Gainara igo eta bi kilometro eta erdi pasatxoko buelta zirkularra da hori. Paraje politak ikus daitezke ibilbide horretan, uretan murgildutako Getariko arratoiari so geratzeko aukera ere izango baitute bertara hurbiltzen direnek. Animaliak biltzeko manga bat, sarioia eta elurzuloa ere topatu daitezke inguruan.

Hirugarren ibilbidea ere izango da: "Zizurkilgo Baserriak" (SL-Gi 25). Abeletxe jatetxean hasiko da eta hiru kilometro eta erdiko paseoa da. Zizurkilgo baserri garrantzitsuenak ezagutzeko parada: Odolkibar, Andrez-keta, Andolako karobia...



Saratxoeta. Baserri eder askoa garai batean, txori-etxe gaur.

bailarako ikuspegi zoragarriaz gozatzeko parada izango dugu. Egun garbietan Tolosaldea eta Goierriko jauntxo moduan parajeaz goza daiteke. Eskuinetara doan pista hartu behar dugu, PR-Gi 117 jarraituz. Marka txuri-horiak izango ditugu lagun.

Bidearen hasiera lasaia da, bailara-
ren edertasunaz gozatu eta giha-
rrak berotzen joateko aproposa.

Zarate bentako trikuharria

Ordu laurden inguru ibili ondoren ondo seinalaturiko trikuharriarekin topo egingo dugu bidearen ezkerrean. Kalkolitiko Neolitikokoa da (K.a. 2.500-1.800). 1954an aurkitu zuen F. Yoldik. Eskuin aldean aldiz, Pagamendi baserria.

Marka txuri-horiak galdu gabe, ezkerrean gure bueltako bidea izango dena ikusiko dugu, bideari jarraituko diogu Arizkurutzeta baserrira jaitsiko garelarik. Harri dotorez egindako

duen bidexkarekin egingo dugu topo, baina guk PR-Gi 117ri eutsiko diogu. Hurrengo bidegurutzean, dagoeneko Adunako lurretan sarturik, erraza izango da aparkatuta dagoen autoren batekin topo egitea. Hementxe PR-Gi 117 bidea utzi eta gure ezkerrean geratzen den bideari helduko diogu

Saratxoeta errekek egiten dituen ur jauzi txiki eta putzuek emango digute begiak non gozatua burdinolako arrasto bila gabiltzala

gorantz. Arizkurutzeta baserritik bidegurutze honetara hamar bat minutuko bidea dugu.

Gelietako bordara hurbiltzen ari garenean eskuinaldean Aiako Harrien ñikadak agurtuko gaitu eta aurrealdean Donostia eta itsasoaren urdintasuna. Atxulondo errekarantz

abiatuko gara hemendik eta beherantz doan bidea izango da nagusi. Itzumitx baserrira iritsi aurretik ataka bat pasa eta Itzumitx ezkerretara utziz, belaze eder bat zeharkatuko dugu. Bi langa pasa ondoren, pinudi batean behera egingo dugu. Pinudian bidea ondo ikusten da, apurka eskuin alderantz joanez. Bidegurutze argi batera iristean argi leku honetan aldatuko dugu eta bueltako bidea. Joateko bidean eskuin aldera egingo dugu; bueltakoan ezkerretako bidea hartuko dugu.

Atxulondo burdinolaren aztarnak

Eskuineko bideari ekin bezain laster itxitura bat pasa eta beherantz jarraituko dugu. Hemen sasiak erraz heretsirik uzten du bidea baina segituan, 400 bat metro egin ondoren, Atxulondo burdinolaren aztarnen parera iritsiko gara.

Ez dago apenas Atxulondo burdinolari buruzko idatzizko erreferentziarik, baina argi dago XV. mendean obra hidrauliko garrantzitsu bat izan zela. Atxulondo, Ondabardi eta Saratxoetako erreketako ura erabiltzen

Zarateko bentan dagoen multzo megalitiko; atzealdean, nabarmen, Ernio-Gazumeko gailurreria.



Atxulondo burdinola, untzak eta hurritzak gordea

ANDOAIN utzi ondoren, Oria ibaiak Belkoain eta Buruntza mendien artetik Lasarterantz irrist egiten du baina erdibidean Atxulondo erreka ura jasotzen du. Ez da erreka handia baina, modu egokian bilduz, burdinola bat martxan jartzeko adina ur ematen du.

Atxulondo burdinolako uharka edo ur depositoa aipatu behar da, ingenieritza obra garrantzitsua izan zelako. Bi presa erabiliz bi erreketako ura, gaur egun lur eta hostoz estalitako kanalen bidez, ur biltegi batera eramaten zuten eta ur saltoen indarra aprobetxatuz burdinola hidraulikoa martxan mantentzen zuten. Eraikin nagusiko gangak ere ikusgarriak omen ziren.

Atxulondori buruzko lehenengo idatzizko erreferentzia 1470. urtekoa da. Enrique IV.a erregeak burdinolaren ustiapena Juan de Avendañori eman zion, aurretik García de Arévalooren eskutan egon zelarik. Burdinolaren jabegoa Zizurkilgo kontzejuetxearena izan zen eta beti alokairu bidez ustiatu zen.



zuten, horietan jarritako presa sistemari esker. Uharka hauek harri handi mailakatuz eginak zeuden eta hiru presen aztarnak ikusgai dira. Era berean, burdinola, etxea eta pareta handi batzuen aztarnak topa daitezke.

Leku honen magia Saratxoetako errekek osatzen dituen ur jauzi txiki eta ur putzuetan dago. Errekan gora eta behera ibiltzeak burdinolara zihozten kanalen aztarnak topatzea erraztuko digu gainera, landaretza berak, uda parterako txoko fresko eta atsegina bilakatzen du.

Ausartenek bueltako bidea Saratxo eta erreka bazterretik gora egin ahal izango dute, Saratxoeta baserri handiaren azken hormetara iritsi arte. Ez da bide errazegia, baina saiatzek merezi du, lekuaren edertasuna dela-eta. Burdinolaren aztarnak eskuinetara utzi eta errekan gora abiatu behar da. Bidea

landare eta zuhaitzen artean ikusten da, erreka alde batetik bestera gurutzatuz. Akaso hankak ere bustiko zaizkigu, baina parajea ezagutzeko modu bikaina da. Aukera errazena, ordea, etorritako bidetik bueltatzea da, pinudian utzi den bidegurutzeraino iritsi arte. Bertan, pinudian gora joan beharrean, eskuineko bidea hartuko dugu eta langa bat pasa ondoren, Saratxoeta baserria izandakoaren atarira iritsiko gara. Baserria eskuinetara utziz, Saratxoetako errekaurren parean doan bidetik jarraituko dugu, gehiegi igo gabe. Ehiztarien paradak ezkerretara utzi ondoren, gorantz egiten duen bideari ekingo diogu, PR-Gi 117ra bueltatuz. Marka txuri-horiak segituz, egindako bidea desegingo dugu. Zarateko benta trikuharriraino malda gora izango dugu eta hortik aurrera autorainoko bidea erraz egingo dugu. ■



anduri landetxea

Ubera Auzoa 13
20570 Bergara.
Tel.: 943 777 050 / 635 727 666

e-posta: andurilandetxea@yahoo.es